

DANTZAN BILAKA 2024 PROGRAMA PARTE-HARTZAILEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

AURKIBIDEA

I.- Sarrera: *Dantzán Bilaka* programaren eta deialdiaren testuingurua.

II.- Deialdiaren oinarriak

- 1.- Deialdiaren xedea, parte-hartzaile kopurua eta baliabideak.
- 2.- Deialdiaren eta programaren organo eta batzorde arduradunak.
- 3.- Programan sartzeko betekizunak.
- 4.- Mugak eta bateraezintasunak.
- 5.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta erantzukizunpeko adierazpenak.
- 6.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua.
- 7.- Balorazio eta hautaketa batzordea.
- 8.- Balorazio eta hautaketa irizpideak.
- 9.- Ebazpena eta jakinarazpena.
- 10.- Hautatutako pertsonen konpromisoak eta ez-betetzeak.
- 11.- Laguntzen ordainketa: prozedura, atxikpenak eta epeak.
- 12.- Erreklamazioak edo desadostasunak kudeatzea.
- 13.- Datuen Babesa.
- 14.- Irudi Eskubideak.
- 15.- Gerorako zirkustantziei buruzko aurreikuspenak.

1 Eranskina – *Dantzán Bilaka* 2024: ekintzen aurreikuspena eta egutegia.

I.- SARRERA:

DANTZAN BILAKA PROGRAMAREN ETA DEIALDIAREN TESTUINGURUA

1996an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Koreografia sorkuntzarako dirulaguntza lerro bat jarri zuen martxan –Dantzako pieza laburrak sortzeko sustapena-. Diruz lagundutako proiektuak hurrengo urtean erakusten ziren 'Koreografo gazteen erakusketa' izenekoan. 'Erakustaldiak' bilakaera izan zuen ikuspegiari, helburuei eta formatuari dagokienez, eta 2007. urtean *Dantzán Bilaka* programaren lehen edizioa sortu zen. Programa horren antolaketaz eta kudeaketaz aldi baterako arduratu da 2015etik, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte (ADDE).

Bestalde, azken urteetan egindako hausnarketa prozesu luze baten ondorioz eta arte eszenikoetarako dirulaguntzen sistemaren berrantolaketa orokorrekina batera, *Dantzán Bilaka* programaren jarraitutasunak bi aldaketa garrantzitsu behar zituela deliberatu zen. Alde batetik, programa sortzaile gisa egindako ibilbidearen hasierako faseetan dauden pertsonen soilik eskaintzeko interesa eta beharra; eta, bestetik, bere ibilbidean zehar, ezaguna izan den eta oinarri izan dituen bi ardatzak argi eta garbi azaltzea eta bateratzea: sorkuntzarako laguntzen deialdia (orain arte programarekiko independentea) eta ondoren, diruz lagundutako pertsonen eta proiektuen inguruko topaketak, jarduerak eta aurkezpenen antolaketa.

Beraz, *Dantzán Bilakaren* 2021eko edizioan dagoeneko eman den aldaketa nagusia da hautatutako pertsonen ematen zaien laguntza ekonomikoa programako jarduera guztietan parte hartzeko zuzenduta dagoela eta beraietan guztietan parte hartu beharra dakarrela: sorkuntza-prozesuen laguntza artistikoa, mentorien,

tailerren, egoitza artistikoen eta garatutako prozesuak jendaurrean irekitzeko jardunaldien bidez. Laguntza hori jasotzeak esan nahi du laguntza horietan guztietan parte hartzeko konpromisoa hartu behar dela.

Deialdi hau Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta (ADDE) Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearen arteko lankidetzaren emaitza da.

2024ko edizioaren laguntzaileak

Edizio honetan Arabako lurralde historikoan izango da. Programa hartuko duen gunea Artium Museoa izango da, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, prozesuak erakusteko espazioa izateaz gain, tailerren eta egonaldien lehen eta hirugarrenaldiak ere bertan egingo dira. Egoitzen bigarren aldirako, Azala Sorkuntza Espazioarekin lankidetzan jarraitzen dugu.

II.- DANTZAN BILAKA 2024 - DEIALDIAREN OINARRIAK

1 - DEIALDIAREN XEDEA, PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA BALIABIDEAK.

1.1.- *Dantzan Bilaka* sorkuntza koreografikoaren esparruan ardura eta profesionaltasun bokazioa duten pertsonen zuzendutako programa da.

1.2.- Deialdi honen xedea da *Dantzan Bilaka 2024* programan parte hartuko duten pertsonak hautatzeko baldintzak arautzea; zehazki, 1. eranskinean zehazten diren helburuak, edukiak eta egutegi aurreikuspena.

1.3.- Deialdi honen bitartez, *Dantzan Bilaka 2024*ean parte hartzeko banakako 7 laguntza emango dira, beti ere 3. atalean araututako sarbide baldintzen eta 10. atalean adierazitako parte hartzeko konpromisoen arabera.

1.4.- Dagokion sortze prozesua laguntzeko eta errazteko, bai eta programako jardueretan parte hartzeko ere, hautatutako pertsona bakoitzak **4.000 euro gordin** jasoko ditu guztira (ikus 11. atala: laguntzen ordainketa: prozedura, atxikipenak eta epeak). Gainera, horiez gain, programaren antolakuntzak programaren jarduerak garatzeko behar diren baliabideak jarriko ditu.

1.5.- Hautaketa prozesuaren ondoren aurrez ikusitako parte-hartzaileen kopurua betetzen ez bada, *Dantzan Bilaka* batzorde artistikoak (2.3 atala), hautatutako parte-hartzaileen arabera, jardueren programa birplanteatu ahal izango du, jarduera horietako bat puntualki indartzeko edo zabaltzeko.

2.- DEIALDIAREN ETA PROGRAMAREN ORGANO ETA BATZORDE ARDURADUNAK.

2.1.- *Dantzan Bilaka* batzorde artistikoari dagokio deialdi honetan aurreikusitako hautaketa prozesua ebatzea.

2.2.- Deialdiaren jarraipen batzordea *Dantzan Bilaka* batzorde artistikoak eta ADDEk osatuko dute edota, gai edo zereginen arabera, horietako bakoitzak eskuordetzen dituen pertsona teknikoek. Batzorde hori arduratuko da deialdi hau kudeatzeaz eta, hala badagokio, egon daitezkeen erreklamazioak argitzeaz, 12. atalean xedatzen den bezala

2.3.- *Dantzán Bilakaren* Batzorde artistikoa arduratuko da programa koordinatzeaz eta antolatzeaz, ADDEekin lankidetzan. Batzorde hori ibilbide profesional aitortua duten artistak osatuko dute, eta ADDEren bulegoaren laguntza teknikoa izango du. Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira:

- a).- Hautaketa Batzordean parte hartzea, 7. atalean arautzen den bezala.
- b).- Programaren jardueren diseinua eta antolaketa.
- c).- Proiektu artistiko bakoitzaren jarraipena, garapena eta optimizazioa, programaren jardueri dagokienez.
- d).- Sorkuntza-prozesuen laguntza artistikoa programan zehar..
- e).- Programaren ebaluazioa.

3.- PROGRAMAN SARTZEKO BETEKIZUNAK.

Deialdi honen bidez, hautatuak izan eta programan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak.

3.1. – Administrazio-izaerako betekizunak:

- a). - 18 urtetik gorakoa izatea (eskabideak aurkezteko epearen barruan).
- b). - Euskal Autonomia Erkidegoko edo Nafarroako (EAE eta Foru Erkidegoa) herrialderen batean jaio eta/edo errolatuta gotea urtebetez (eskabideak aurkezteko epearen barruan).

3.2.- Programaren helburuei eta profilari buruzko betekizunak:

3.2.1.- Koreografo gisa, beren karreraren hasieran ari direla egiaztatzen duten pertsonak hautatu ahal izango dira, eta horretarako, honako agiri edo erreferentziak aurkeztu beharko dituzte:

- a).- Dantza, arte eszeniko eta beste arlo artistiko batzuen inguruko prestakuntza.
- b).- Dantzako sorkuntzaren eta/edo interpretazioaren arloko ibilbidea.
- c).- Egindako eta aurkeztutako sorkuntzak.

3.2.2. Eskatzaileek motibazio-gutun bat aurkeztu beharko dute deialdi honetan, jatorrizko koreografia-proiektu batekin batera. Proiektu hau programaren esparruan garatu eta aurkeztuko da. (ikus 1. Eranskina –5. atala).

3.2.3.- Eskatzaileek programan parte hartzeko konpromisoa adierazi beharko dute, 5.3 eta 10. ataletan adierazitako baldintzetan.

4.– MUGAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

4.1.- Eskatzaileek ezin dute 3 lan baino gehiago eremu profesionalean estreinatutako izan, deialdi honen aurretik.

4.2.- Aurkeztu beharreko proiektuek jatorrizkoak izan behar dute, eta ezin izan dira estreinatu ez eta laguntza ekonomikorik izan deialdi hau baino lehen; aurreko lanekin alderatuta jarraitutasun tematikoa eta/edo estilistikoa alde batera utzi gabe.

4.3.- Hautaketa egin ondoren, parte-hartzaileek beste laguntza batzuk eskatu ahal izango dituzte sorkuntza prozesu berari dagokionez edota beste programa edo aurkezpen batzuetan parte hartu, beti ere *Dantzán Bilakaren* jarduera guztietan parte hartzeko konpromisoa errespetatzen eta bermatzen bada.

4.4.- Nolanahi ere, programan gehienez ere hiru aldiz parte har daiteke.

4.5.- *Dantzán Bilakak* segidako edizioetan parte hartu ahal izango da, baina hautaketa prozesuan lehenetsua izango dute aurreko edizioan parte hartu ez duten pertsonak, betiere eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen bada.

5.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK.

5.1. Eskabide-orria, datu pertsonalak eta administrazio agiriak.

- a).- Formularioa: datu pertsonalak eta kontakturako; curriculumaren eta aurkeztutako proiektuaren oinarriko erreferentziak; erantzukizunpeko adierazpenak (ikus 5.3 atala).
- b).- Nortasun-agiria (NAN edo agiri baliokidea).
- c).- Errolda-ziurtagiria (beharrezkoa bada, 3.1 atalean ezarritakoaren arabera).

5.2. Proiektuari buruzko dokumentazioa:

- a).- Eskatzaileak programan parte hartzeko duen interesa azaltzen duen motibazio-gutuna.
- b).- Proiektuaren memoria, honako eduki hauekin:
 - b1.- Koreografia ikerketako prozesuaren azalpena eta garapena: planteamendu artistikoa, ikerketa, plangintza, erreferentziak, etabar.
 - b2.- Garapen-plana.
- c).- Eskatzailearen prestakuntza eta jarduera curriculumak.
- d).- Prestakuntza eta egindako jardueren ziurtagiriak.

5.3.- Erantzukizunpeko adierazpenak.

Formularioa bete eta bidaltzean, erantzukizunpeko adierazpenean inguruabar hauek egiaztatuko dira:

- Proiektu originala dela, eta orain arte ez dela horrela garatu.
- Orain arte aurkeztutako proiektua garatzeko dirulaguntzarik jaso ez izana eta eskatu ez izana.
- Eskatzaileak programako jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzea, oinarri hauen 10. atalean eta 1. eranskineko 6. atalean aurreikusitako baldintzetan.
- Egiazkoak direla eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak.

Eskabidea aurkezteak deialdi honen oinarriak onartzea ekarriko du.

6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA.

6.1.- Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau *Dantzan Bilakaren* webgunean <https://dantzanbilaka.org/> argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2023ko irailaren 30era arte egongo da zabalik.

6.2.- Webgune horretan, eskabideak jasotzeko azken eguna eta ordua iragarriko dira.

6.3.- Eskabideak webgunearen bidez aurkeztu beharko dira, <https://dantzanbilaka.org/> atarian.

6.4.- Programaren koordinazioak eskaera jaso izanaren agiria bidaliko dio eskatzaileari.

6.5.- Aurkeztutako dokumentazioan akatsik ikusten bada, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari eskabidea osatzeko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, deialdiari uko egin duela ulertuko dela.

6.6.- Deialdiari buruzko kontsultak honako kontaktu honen bidez bideratuko dira. E-mail: info@addedantza.org (gaia: 'Dantzan Bilaka_kontsulta').

7.- BALORAZIO ETA HAUTAKETA BATZORDEA

7.1.- Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko eta ebazpena egiteko, balorazio Batzorde bat egongo da, honako pertsona hauek osatua:

Dantzan Bilaka 2023ko batzorde artistikoa eta Dantzan Bilaka 2024ko batzorde artistikoko kide berria.

Idazkaria: ADDEko bulego teknikoko pertsona bat.

7.2.- Balorazio Batzordearen benetako osaera deialdiaren webgunean argitaratuko da <https://dantzanbilaka.org/> batzordea eratu aurretik, interesdun orok errekusatzeko eskubidea baliatu ahal izan dezan legez ezarritako lanpostuetan eta baldintzetan

7.3.- Eskatzaileek beren proiektua Batzordearen aurrean defendatzeko aukera izango dute, aurrez aurre edo telematikoki (15' gehienez). Era berean, Balorazio batzordeak aurkeztuako proiektuari buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei.

8.- BALORAZIO ETA HAUTAKETA IRIZPIDEAK.

8.1.- 3. atalean ezarritako sarbide baldintzak betetzen dituzten proiektuak irizpide eta ehuneko erlatibo hauen arabera baloratu eta puntuatuko dira:

a).- Koreografia sortzeko proiektuaren hasierako proposamenaren interesa -35 puntu, gehienez-.

Atal honetan alderdi hauek hartuko dira kontuan: planteamendu artistikoak; ikerketa eta plangintza.

b).- Programan parte hartzeko motibazio gutuna -20 puntu, gehienez-.

Atal honetan, eskatzailearen motibazioen maila eta koherentzia baloratuko dira, dantza, sorkuntza eta garapen profesionalari dagokionez. Era berean, programaren helburu, baliabide eta jardueretako interesari buruzko argudioak baloratuko dira.

c).- Eskatzailearen prestakuntza eta ibilbide curriculum -20 puntu gehienez-.

d).- Euskadin jarduera garatzea eta Dantzaren tokiko sektorearen testuinguruan aurreikusitako harreman-lankidetzak –15 puntu, gehienez –.

e).- Dantzaren esparruan aukera eta ikusgarritasun gutxiago duten gizarte-kolektiboetako kideen parte-hartzea. -10 puntu, gehienez-.

8.2.- *Dantzán Bilaka* 2024eko parte-hartzaileen hautaketa gutxienez 55 puntu lortzen dituzten proiektuen artean lortutako puntuazioaren lehentasun-hurrenkeraren arabera egingo da, eta, nolahi ere, 4.5 atalean ezarritako lehentasun-irizpideari jarraituz.

9.- EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA.

9.1.- Deialdiaren ebazpenean, *Dantzán Bilaka* 2024 programan parte hartuko duten pertsonen/proiektuen zerrenda jasoko da, bai eta onartu ez direnak ere

9.2.- Deialdiaren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, gehienez ere 3 hilabeteko epean, deialdia indarrean jartzen den egunetik zenbatzen hasita. Parte-hartzaileen zerrenda deialdiaren webgunean ere argitaratuko da.

9.3.- Ebazpenaren emaitzaren aurka, berrikusteko eskaera aurkeztu ahal izango zaio programaren jarraipen Batzordeari (2.2. atala), eta batzordeak gehienez ere hamar eguneko epean ebatzi beharko du.

10.- HAUTATUTAKO PERTSONEN KONPROMISOAK ETA EZ-BETETZEAK

10.1.- *Dantzán Bilakaren* laguntzetarako hautatutako pertsonen betebeharrak hauek izango dituzte:

a).- Laguntza ekonomikoa programan parte hartzeko eta aurkeztutako proiektua garatzeko erabiltzea.

b).- *Dantzán Bilaka* 2024 programako programatutako jardueretan parte hartzea (ikus 1. Eranskina).

c).- *Dantzán Bilaka* jardunaldietan zehar egindako lanaren emaitza edo ondorio batzuk jendaurrean aurkeztea, partehartzaile bakoitzak eta Batzorde artistikoak prozesuan zehar adosten duten moduan (ikus 1. Eranskina –6. atala).

10.2.- Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharrak edo 4. atalean ezarritako mugak eta bateraezintasunak ez betetzeak berekin ekar dezake emandako laguntza errebokatzeta eta, hala badagokio, ordura arte kobratutako zenbatekoa itzultzeko erreklamazioa egitea.

11.- LAGUNTZEN ORDAINKETA: PROZEDURA, ATXIKIPENAK ETA EPEAK.

11.1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ordaintzeko, ADDEk kontratu bat sinatuko du hautatutako pertsona bakoitzarekin, 1.4 atalean aurreikusitako zenbatekoagatik *37/1992 Legearen 20. artikulua* arabera – Bat, 9 eta 10. Artikulua – (*Dantzán Bilaka* koreografia-sorkuntzaren arloko prestakuntza programa da), *Dantzán Bilaka* 2024 programan parte hartzeagatik.

Zenbateko horri kasu bakoitzean dagozkion legezko atxikipenak aplikatuko zaizkio.

11.2.- Nahiz eta prestakuntza-programa bat izan, azken aurkezpenei begira, kontuan izan behar da sortze-prozesuaren erakustaldian parte hartzen duten pertsona guztien gizarte-segurantzako altak kontratatu eta erregularizatu beharko direla. Izapide horiek laguntzaren onuradunak egingo ditu.

11.3.- Laguntzak bi epetan ordainduko dira, bi fakturen bidez. **Fakturak, zergak barne (PFEZ)**. Lehenengoa, aurreikusitako kopuru osoaren % 75a, 2024ko urtarrilaren 31 baino lehen ordainduko da, eta gainerako % 25a, 2024ko abenduaren 30a baino lehen.

12.- ERREKLAMAZIOAK EDO DESADOSTASUNAK KUDEATZEA.

12.1.- Programaren jarraipen batzordea –2.2. atala –Arduratuko da deialdi hau kudeatzean gerta daitezkeen gorabeherak edo erreklamazioak ebazteaz.

12.2.- Programaren jardueren esparruan sor daitezkeen beste gai, desadostasun edo gatazka batzuei dagokienez, batzorde artistikoa arduratuko da horiek ebazteaz, edo, azken instantzian, Jarraipen Batzordera joko du ez-betetze prozedura bat irekitzeko.

12.3.- Jarraipen Batzordeak, *Dantzan Bilaka Batzordeak* hala eskatuta -2.3 atala-, ez-betetze proiektua irekitzeko eta ebazteko ardura izango du; kudeaketa, nolana ere, behar besteko bermeekin egingo da, interesa duten pertsonetikiko eztabaidari eta negoziazioari dagokienez.

13.- DATUEN BABESA.

13.1.- Oinarri hauek onartzean, eskabidea aurkezten den unean *Dantzan Bilakari* emandako datu pertsonalak eta laguntza jasotzen duen proiektua gauzatzen den bitartean ematen direnak, hautatuz gero, erakunde horrek bere eskabidea izapidetu eta kudeatzeko erabiliko ditu, Halaber, ematen diren laguntzak baliatu ahal izango dira, eta, ondoren, laguntza horiekin hornitutako proiektuaren zabalkundea egingo da.

13.2.- Pertsona eskatzaileen datu pertsonalak beren proiektua baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzaren emakida kudeatzeko behar den denboran gordeko dira, bai eta dagozkien legezko betebeharrak betetzeko behar den kontserbazio epe gehigarria ere.

13.3.- Eskatzaileek eta onuradunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasuna eskatzeko edo haien tratamenduaren aurka egiteko, programaren posta elektronikoko helbidera idatziz info@addedantza.org (gaia: Dantzan Bilaka'_datu pertsonalak) eta erreklamazioa aurkezteko. Datuen babesaren arloko informazio gehigarria: www.addedantza.org

14.- IRUDIEN ERREGISTROA

14.1.- *Dantzan Bilaka* 2024ren esparruan egiten diren jardueri buruzko edukiak erregistratu ahal izango ditu *Dantzan Bilaka* programak, baliabide tekniko egokien bidez (argazkiak, bideoa, etab.), eta irudi horiek eta haien izena programaren webgunean erabili eta erreproduzitu ahal izango ditu, hala nola, beste edozein euskarritan, ukigarriak edo ukiezinak, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean, hori guztia programa edo egindako sorkuntzak hedatzeko helburu bakarrarekin.

14.2.- *Dantzan Bilakaren* azken aurkezpen jardunaldietan erakutsitako sorkuntzak edo lanak HD/mp4 formatu estandarrean grabatu eta editatuko dira. Artxibo digitala postaz bidaliko zaie parte-hartzaileei euskarri digitalean. Gainera, dokumentu bakoitzaren kopia bat Eresbil musikaren euskal artxibora bideratuko da, partehartzaile bakoitzaren alde aurreko idatzizko baimenarekin.

14.3.- Parte-hartzaileek deialdi honetan ezarritakotik haratago lortu nahi dituzten material grafikoak beraiek kudeatu beharko dituzte.

15.- GERORAKO ZIRKUSTANTZIEI BURUZKO AURREIKUSPENAK

Deialdi honen ondoren sortutako inguruabarren arabera, erakunde antolatzaileek 2024rako aurreikusitako jarduerak (1. Eranskina) etetea edo aldatzea proposatu ahal izango luke. Horrelako kasuan, eta ahalik eta aurrerapen handienarekin, erakundeak parte-hartzaileekin partekatuko lituzke eta, ahal den neurrian, adostuko beharrezkoak diren aldaketa proposamenak.

Era berean, aldaketa horiek aurreikusitako programaren jarduera nagusiei eragingo baliete, partaideak eskaera egiteko unean hartutako konpromisoetatik aske geratuko lirateke, eta erakundearekin birnegoziatuko lukete jardueretan parte hartzeko modua.

Programak, bestalde, kasu horietan, sorkuntza proposamenak garatzeko laguntza ekonomikoaren konpromisoari eutsiko lioke, eta, kasu horretan, edonola ere, dirulaguntza dagozkion sorkuntza prozesuen garapenean erabiltzen den egiaztatzeko modua negoziatuko litzateke.

Bilbon, 2023ko abuztuaren 30a.

Dantzán Bilakaren Batzorde Artistikoa eta ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko Lehendakaria.



1.ERANSKINA DANTZAN BILAKA 2024 – JARDUERA PROGRAMA ETA EGUTEGIA

1.- SARRERA: DANTZAN BILAKA PROGRAMA – ESPARRUA ETA HELBURUAK

Dantzán Bilaka Koreografia sorkuntzaren arloan profesionaltasun bokazioa duten pertsonen zuzendutako programa da. Mugimenduetatik, ekintzetatik, jolasetatik, hizkuntzetatik eta gorputzaren eta haren praktika lan-eremu gisa interesa dutenentzat. Ikaskuntza partekatuaren bidez esperientzia bat sortu nahi duen esparru baten barruan; parte-hartzaileen, Batzorde artistikoaren eta parte-hartzaileen prestakuntzara gonbidatutako profesionalen artean. Hautatutako artista bakoitzak bere interesetarako garatu ahal izan dezan bere proiektua, programaren garapena osatzen duten profesionalen ezagutza partekatutik ondorioztatzen den posiziotik eta aberastasunetik abiatuta.

2024ko deialdi honek laugarren aldiz biltzen ditu, programak bere ibilbidean zehar bere profila edo nortasuna argitu dituen ardatz edo uneak:

- Proiektuak hautatzeko eta dirulaguntzak emateko deialdia.
- Jardueretan parte hartzea.
- Egindako prozesu edo lanen erakustaldia.

Jarraian, 2024 programaren helburuak, jarduera plana, egutegia eta erreferentzia praktikoa zehatzak zehazten dira.

2.- HELBURUAK

Dantzan Bilakak elkarrizketarako lan esparru irekia eskaini nahi du, esperientziak kontrastatzeko eta sormen koreografikoko prozesuak aldatzeko, ideien eta lengoaien dibertsitatea sustatuz. Horretarako, zenbait jardueraz osatutako programa bat eratzeko da, prozesuak partekatzen eta euskal komunitate artistikoarentzako topaketa bat sortzeko.

2.1.- Programaren helburuak honako hauek dira:

- Hautatutako pertsonen arteko topaketaren eta elkarrizketaren bidez, beren sorkuntza lengoaiak sortzeko eta garatzeko prozesuei buruzko hausnarketa bultzatzea.
- Hausnarketarako eta ideiak eta pentsamendua trukatzeko testuinguru bat ahalbidetzea.
- Koreografia-sorkuntzako prozesuak babestea, laguntzea eta ikusaraztea, eta testuinguru egokia sortzea. programaren amaierako jardunaldietan irekitzeko eta aurkezteko.

3.- JARDUERA-ARDATZAK

3.1 Helburu horiekin, *Dantzan Bilaka* lau jarduera-ardatz bereiziren gainean hedatzen da, eta horiei guztiei garrantzi bera ematen zaie:

- **Tailerrak:** Bizikidetzarako eta ikaskuntza kolektiborako espazioak.
- **Egoitzak:** Hiru bizileku-aldi eskaintzen dira ikerketa-prozesuen garapena errazteko.
- **Laguntza artistikoa/mentoring:** proiektuei jarraipena egitea eta laguntzea sorkuntza prozesuetan.
- **Azken jardunaldiak:** testuinguru egokia ezarriko da egindako lan-prozesuen aurkezpen publikoetarako.

4.- PROGRAMAREN ANTOLAKETA

4.1.- EGUTEGIA

Dantzan Bilaka 2024 programa urte horretako urtarrilaren eta urriaren bitartean izango da.

Eranskin honetako 5. atalean, programak hilabeteotan garatuko dituen jardueren taula orokorra agertzen da.

4.2.- EDUKIAK

Aurreko atalean aipatutako jarduera-ardatzetara dagokienez, honela antolatuko da:

Horietara guztietara joatea nahitaezkoa da, garrantzi berekoak baitira programa garatzeko.

Programa modu intentsiboan garatuko da, hiru fasetan: lehenengo bi faseak elkarren segidakoak ez diren bi agintetan gertatuko dira, eta horietan tailer bat eta egoitza bat konbinatuko dira. Bi aldi horiek **otsailaren 26tik martxoaren 3ra eta ekainaren 3tik 9ra** dira. Hirugarren fasean, azken egoitza teknikoa egingo da **irailaren 9tik 13ra**. Horietan guztietan laguntza artistikoa egongo da.

Topaketaren eta programaren ezagutza transmisioaren helburuak errazteko, *Dantzan Bilakak* beteko du aipatutako lehen bi faseetako ostatua, bai eta azken aurkezpen jardunaldietako ostatua ere. Hautatutako proiektu bakoitzeko, gehienez, 3 pertsonen ostatua estaliko da. *Dantzan Bilaka* EZ da hirugarren aldiko ostatuaz arduratuko (irailaren 9tik 13ra).

Dieten eta joan-etorrien gastuak sortzaile bakoitzak estali beharko ditu jasotako diru-laguntzarekin.

A).- TAILERRAK:

Bizikidetzarako eta ikaskuntza kolektiborako espazioak. Tailerrak deialdi honetan parte hartzeko hautatutako pertsonen profiletatik abiatuta antolatu eta definituko dira. Dantzaren arloko profesionalak emango dituzte. Mugimendu, sorkuntza eta ikerketa koreografikoko tresnak partekatzea zuzenduta egongo dira, proiektu bakoitzaren prozesu artistikoaren garapena bultzatzeko helburuarekin.

B).- EGOITZAK:

Hiru egonaldi eskaintzen dira, sorkuntza- eta ikerketa-prozesuak garatzeko. Egoitza horiek helburu hauek dituzte:

- Lan eremu desberdinetan hainbat saio erraztea.
- Parte-hartzaileen arteko topaketa eta harremana ezartzea, proiektuak garatzen dituzten eta haien prozesua partekatzen duten neurrian.
- Laguntza artistikoa optimizatzea.

C).- LAGUNTZA ARTISTIKOA:

Hautatutako proiektuen sorkuntza prozesuen garapenaren bitarteko jarraipena eta laguntza. Egoitza-aldietan egingo dira, hain zuzen aldi horiek optimizatzeke.

Aldi horietatik kanpo, proiektu bakoitzaren behar espezifikoaren arabera eskainiko dira.

D).- AZKEN JARDUNALDIAK:

2024ko edizioan, prozesuen aurkezpena Artium Museoan egingo da, eta bi edo hiru egunez formatu desberdinetako lanak hartzeko gaitasuna izango du.

2024. edizioko jardunaldietan laguntza jasoko duten zazpi proiektuak aurkeztuko dira.

Proiektu bakoitzaren aurkezpenak 30 minutuko iraupena izango du gehienez.

Lan bakoitza ze espaziotan aurkeztuko den definitzeko, bakoitzaren izaeraren eta espezifikotasunaren arabera zehaztuko da baita programara egokieraren eta beste faktore batzuen arabera ere. Gai horri buruzko erabakia parte-hartzaile bakoitzak hartuko du, *Dantzán Bilaka* Batzorde artistikoarekin eta programako koordinazio teknikoko taldearekin hitz eginez.

Dantzán Bilaka 2024 programaren aurkezpenak **2024ko urriaren 11, 12 eta 13an** egingo dira Artium Museoan.

5.- JARDUEREN EGUTEGIA ETA OHARRAK

DATAK / TOKIA	JARDUERA	OHARRAK
Urtarrilak 26	Koordinazio bilera	Programari hasiera emanez, koordinaziorako eta informaziorako hasierako bilera bat egingo da.
Otsailak 26 > Martxoak 3 ARTIUM MUSEOA	Lehen tailerra / egonaldia / mentoring	D.B.k ostatua ordainduko du (ez joan-etorriak ez dietak)
Ekainak 3 > 9 AZALA	Bigarren tailerra/ egonaldia / mentoring	D.B.k ostatua eta dietak ordainduko du (ez joan-etorriak ez dietak)
Irailak 9 > 13 ARTIUM MUSEOA	3. egonaldia teknika/mentoring	D.B.-k ez ditu ostatu gasturik ordaintzan, ez eta joan etorriak ez dietak)
Urriak 11,12,13 ARTIUM MUSEOA	D.B. jardunaldiak – aurkezpenak	D.B.k ostatua ordaintzen du (ez joan-etorriak ez dietak)

6.- NAHITAEZKOTASUNA: IRIZPIDEAK ETA ERREFERENTZIAK

Dantzán Bilaka, bere planteamendu berrian, programa integral gisa ulertzen da: laguntza ekonomiko hau jasotzea programaren jarduera guztietan parte hartzeko konpromisoa da. Hala, eskabidea aurkeztean, eskatzaileek programa osoan parte hartzeko konpromisoa eta interesa adierazi beharko dute.

Gai horri dagokionez, Batzorde Antolatzaileak berariazko zirkulantziak ulertu eta onartu ahal izango ditu, baldin eta, ezinbestean, aurreikusitako jardueretako batean parte hartzea eragozten badute edo jarduera horietako batean modu birtualean parte hartzea beharrezkoa bada.

Aurreikusitako programaren garapenean eragina izan dezaketen gorabeherei dagokienez: kontuan hartu deialdiaren 15. atala.